

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko ekainaren 8tik 15rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2020/06/09

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. Dirulaguntzak.** APA/508/2020 Agindua, ekainaren 5koa, zeinaren bidez, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma egoera aplikatzearen ondorioz, martxoaren 14ko 169/2018 Errege Dekretuak ezarritako zenbait baldintza eta epe egokitzen diren. Errege Dekretu horren bidez, nekazaritzako produktibitatearen eta jasangarritasunaren arloan Berrikuntzarako Europako Elkarteko talde operatiboek interes orokorreko berrikuntza-proiektuak egiteko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dira. [2020-5835 xedapena - 5 orri.](#)

2020/06/10

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.- Premiazko neurriak.-** 21/2020 Errege Lege-dekretua, ekainaren 9koa, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren aurrean premiazko prebentzio-, euste- eta koordinazio-neurriak hartzen dituen. [2020-5895 xedapena - 30 orri.](#)
- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.- Alarma egoera. Aireko garraioa.-** Ebazpena, 2020ko ekainaren 8koa, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiarena, zerbitzu publikoko betebeharra duten aire garraioko zerbitzuen mailak egokitzen dituen, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren deseskalatze prozesuan eskariak izan duen garapenera egokitzeko. [2020-5897 xedapena - 2 orri.](#)
- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA.-**
 - **Mahastizaintza eta ardogintza sektorea.-** 557/2020 Errege Dekretua, ekainaren 9koa, zeinaren bidez ezohiko neurriak hartzen diren ardoaren sektorean COVID-19aren pandemiak eragin duen krisiari aurre egiteko, eta ardoaren sektorean komertzializazio-arau bat ezartzen duen, eta

mahastizaintzaren eta ardoaren sektorean nahitaezko aitortpenen araudia eta ardoaren sektorearen babeserako programa aldatzen diren. [2020-5898 xedapena - 20 orri.](#)

- **Nekazaritza sektorea.-** 558/2020 Errege Dekretua, ekainaren 9koa, fruten, barazkien eta mahastizaintza eta ardogintzaren alorreko Europar Batasunaren erregelamenduak garatzeko oinarrizko araudiak ezartzen dituzten zenbait errege dekretu aldatzen dituen. [2020-5899 xedapena - 23 orri.](#)

- **JUSTIZIA MINISTERIOA.- Erregistro-prozedurak.-** Instrukzioa, 2020ko ekainaren 4koa, Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarena, COVID-19aren osasun krisiaren ondorioz hartutako neurriak kentzeari buruzkoa. [2020-5952 xedapena - 3 orri.](#)

2020/06/11

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.- Aireko nabigazioa. Tarifak.-** TMA/512/2020 Agindua, ekainaren 5koa, zeinaren bidez aldatzen den Aireko nabigaziorako sarea (Eurocontrol) erabiltzearen tarifak onartzen dituen ekainaren 6ko 1675/1972 Dekretuaren I. eranskinaren bosgarren atala, eta tarifa horien berandutze-interesaren tipoa aldatzen den. [2020-5971 xedapena - 3 orri.](#)

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA.- Animalien osasuna.-** APA/513/2020 Agindua, ekainaren 8koa, zeinaren bidez aldatzen diren martxoaren 18ko 389/2011 Errege Dekretuaren I. eta II. eranskinak. Errege Dekretu horrek behi-tuberkulosia, behi-bruzelosia, ardi- eta ahuntz-bruzelosia, mingain urdina eta entzefalopatia espongi-forme transmitigarriak borrokatzeko, kontrolatzeko edo desagerrarazteko programa nazionalen esparruan animaliak hiltzeagatik kalte-ordainen baremoak ezartzen ditu. [2020-5972 xedapena - 3 orri.](#)

2020/06/12

- **GORTE NAGUSIAK.**

- **Alarma egoera. Premiazko neurriak.-** Ebazpena, 2020ko ekainaren 10ekoa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila COVID-19aren ondorioak arintzeko nekazaritza, zientzia, ekonomia, enplegu eta Gizarte Segurantzaren eta zergen alorretan neurri osagarriak hartzen dituen maiatzaren 26ko 19/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. [2020-6022 xedapena - 1 orri.](#)

- **Bizitzeko gutxieneko errenta.-** Ebazpena, 2020ko ekainaren 10ekoa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila bizitzeko gutxieneko errenta ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. [2020-6023 xedapena - 1 orri.](#)

- **OSASUN MINISTERIOA.**

- **Alarma egoera. Nazioarteko turismoa.-** SND/518/2020 Agindua, ekainaren 11koa, Illes Balears autonomia erkidegoan korridore turistiko seguruak irekitzeko programa pilotu bat baimentzea arautzen duena, COVID-19ak eragindako osasun krisiko egoeraren ondorioz barne mugetan ezarri diren kontrolak partzialki kenduta. [2020-6024 xedapena - 6 orri.](#)
- **Sendagaiak.-** Ebazpena, 2020ko ekainaren 2koa, Osasun eta Farmaziako Sistema Nazionaleko Zerbitzuen Zorro Komunaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen den 2020ko martxoaren 3ko Ministroen Kontseiluaren akordioa. Horren bidez, sendagai umezurtzen erregimen ekonomikoa ezarri da, uztailaren 24ko 1/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Sendagaien eta osasun produktuen bermeen eta erabilera zentzuzkoaren legearen testu bateginaren 3.3 artikulua babesean. [2020-6025 xedapena - 3 orri.](#)

2020/06/13

- **OSASUN MINISTERIOA.- Alarma egoera. Premiazko neurriak.-** SND/520/2020 Agindua, ekainaren 12koa, alarma egoera deklaratu ondoren ezarritako estatu mailako zenbait murrizketa malgutzen dituen eta normaltasun berri baterako trantsiziorako planaren 3. fasera zer lurralde unitate pasatzen diren ezartzen duena. [2020-6088 xedapena - 6 orri.](#)

2020/06/15

- **OSASUN MINISTERIOA.- Alarma egoera. Mugak.-** SND/521/2020 Agindua, ekainaren 13koa, luzatu egiten dituen hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen akordioa herrialdeetara ezinbestekoak ez diren bidaiak egiteko aldi baterako debekua aplikatzeko irizpideak, COVID-19ak eragin duen osasun krisia dela-eta, ordena publikoko eta osasun publikoko arrazoiengatik.- [2020-6107 xedapena - 4 orri.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2020/06/09

- **LEHENDAKARITZA.- HUTS-ZUZENKETA, honako dekretu honena:** 13/2020 Dekretua, ekainaren 7koa, Lehendakariarena, zeinaren bidez trantsizio-prozesuaren 3. fasea kudeatu eta aplikatzeko arauak ezartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoaren esparrurako. [2020-2237 xedapena - 1 orri.](#)
- **INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA.-** 69/2020 DEKRETUA, maiatzaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kartografia eta informazio geografikoa antolatzeari buruzkoa [2020-2238 xedapena - 11 orri.](#)

2020/06/12

- **LAN ETA JUSTIZIA SAILA.-**AGINDUA, 2020ko ekainaren 2koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, langileek, dagozkien ordainsariak jasota, 2020ko uztailaren 12ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan parte hartzeko arauak ematen dituen. [2020-2291 xedapena - 3 orri.](#)

2020/06/15

- **EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA.-** 76/2020 DEKRETUA, ekainaren 9koa, gas erregaiak kanalizazio bidez banatu eta garraiatzeko instalazioei buruzko administrazio-baimenen prozedurena. [2020-2305 xedapena - 15 orri.](#)
- **GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK.**
 - EBAZPENA, 2020ko ekainaren 3koa, Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakariarena, honako arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 2/2020 Foru Dekretu-Araua, maiatzaren 5koa, COVID-19aren osasun krisiaren ondorioz zerga arloko neurri osagarriak ezartzen dituen. [2020-2306 xedapena - 1 orri.](#)
 - EBAZPENA, 2020ko ekainaren 3koa, Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakariarena, honako arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 3/2020 Foru Dekretu-Araua, maiatzaren 12koa, udalak finantzatzeko foru funtsagatik 2020an egin beharreko konturako ordainketak aldatzen dituen eta toki-erankundeentzako aurrekontu eta zerga arloko hainbat neurri ezartzen dituen. [2020-2307 xedapena - 1 orri.](#)

- EBAZPENA, 2020ko ekainaren 3koa, Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakariarena, honako arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 4/2020 Foru Dekretu-Araua, maiatzaren 12koa, baliozkotzeari buruzko eztabaida eta bozketa: COVID-19 gaitzaren osasun krisiaren ondorioz aurrekontu arloko neurri jakin batzuk onartzen dituen. [2020-2308 xedapena – 1 orri.](#)

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2020/06/08

- **FORU ARAUAK.-** 7/2020 Foru Araua, maiatzaren 27koa, 6/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, maiatzaren 12koa, baliozkotzeko dena, onespena emateko COVID-19rekin lotutako zerga neurri berriak hartzeari. [2020-1273 xedapena – 1 orri.](#)
- **ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUAK.-** Foru Gobernu Kontseiluaren 7/2020 Zerga premiazko araugintzako dekretua, ekainaren 2koa. Onestea COVID-19arekin lotura duten eta sozietateen gaineko zergari eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari eragiten dieten premiazko neurriak.- 2020- [2020-1290 xedapena – 9 orri.](#)
- **SAILA (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).-** 224/220 Foru Agindua maiatzaren 22koa, Batasunaren barruko eragiketen aitortpen laburpenaren 349 eredia eta haren diseinu logikoak eta hura aurkezteko tokia, modua eta epea onesten dituen.- [2020-1286 xedapena – 38 orri.](#)

2020/06/15

- **FORU GOBERNU KONTSEILUAREN ERABAKIAK**
 - Foru Gobernu Kontseiluaren 205/2020 Erabakia, maiatzaren 12koa. Onestea jarduera ekonomikoen gaineko zergari dagozkion 2019ko probintzia eta estatu kuotak banatzea Arabako Lurralde Historikoko udalen artean.- [2020-1355 xedapena – 1 orri.](#)
 - Foru Gobernu Kontseiluaren 228/2020 Erabakia, ekainaren 2koa. Onespena ematea huts materiala zuzentzeari maiatzaren 12ko 205/2020 Erabakian, zeinaren bidez onetsi baitzen Arabako Lurralde Historikoko udalei jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2019ko probintzia eta estatu kuotak banatzea. [2020-1356 – xedapena – 2 orri.](#)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2020/06/10

- **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA OGASUN ETA FINANTZA SAILA.-** Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 1074/2020 FORU AGINDUA, ekainaren 5koa, zeinaren bidez garatzen baita makina edo aparatu automatikoak erabiliz egiten den jokoaren gaineko tributuen eta tributu horren gaineko errekaruaren autolikidazioa eta ordainketa egiteko araubidea, COVID-19aren inaktuari aurre egiteko, jokoaren sektorean hartutako presazko neurrien ondorioz ustiatzeko baimenen eraginkortasuna aldi baterako etenda duten makinatarako. [2020-109 \(I-382\) xedapena – 4 orri.](#)

2020/06/11

- **Ekonomia Sustatzeko Saila.-** Bizkaiko Foru Aldundiaren 55/2020 FORU DEKRETUA, ekainaren 9koa, Bizkaia aurrera! Mikrokredituen Programaren 2020. urterako oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituen. [2020-110 \(I-385\) xedapena – 14 orri.](#)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2020/06/10

- **GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK.**
 - Ebazpena, 2020ko ekainaren 3koa, Gipuzkoako Batzar Nagusia, honako arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 2/2020 Foru Dekretu-Araua, maiatzaren 5koa, COVID-19aren osasun krisiaren ondorioz zerga arloko neurri osagarriak ezartzen dituen. [2020-2579 xedapena – 1 orri.](#)
 - Ebazpena, 2020ko ekainaren 3koa, Gipuzkoako Batzar Nagusia, honako arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 3/2020 Foru Dekretu-Araua, maiatzaren 12koa, Udalak Finantzatzeko Foru Funtzariatik 2020an egin beharreko konturako ordainketak aldatzen dituen. [2020-2580 xedapena – 1 orri.](#)
 - Ebazpena, 2020ko ekainaren 3koa, Gipuzkoako Batzar Nagusia, honako arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 4/2020 Foru Dekretu-Araua, maiatzaren 12koa, COVID-19 gaitzaren osasun krisiaren ondorioz aurrekontu arloko neurri jakin batzuk onartzen dituen. [2020-2582 xedapena – 1 orri.](#)

- **EKONOMIA SUSTAPENeko, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA.-** "COVID-19ari aurre egiteko tokiko merkataritza eta ostalaritza sektoreetan ekonomia indarberritzeko Programa"ren oinarri arautzaileak eta 2020ko deialdia. [2020-2678 xedapena – 13 orri.](#)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

2020/06/12

- Batzordearen jakinarazpena, elikagaien sektoreko txikizkarien jardueretan (elikagaien dohaintzak barne) elikadura segurtasuna kudeatzeko sistemei buruzko jarraibideekin. [C 199/1](#)

2020/06/15

- Batzordearen 2020/780 (EB) Betearazpen Erregelamendua, 2020ko ekainaren 12koa, zeinaren bidez aldatzen diren 445/2011 (EB) Erregelamendua eta 2019/779 (EB) Betearazpen Erregelamendua, mantentze-lanez arduratzen diren trenbide-erakundeen ziurtagiri jakin batzuen baliozkotasuna luzatzeko neurriei eta COVID-19aren pandemiaren ondoriozko zenbait xedapen iragankorri dagokienez. (1) 8. [L 188/8](#)
- Batzordearen 2020/783 (EB) Betearazpen Erabakia, 2020ko ekainaren 12koa, zeinaren bidez aldatzen den 2012/757/EB Erabakia, COVID-19aren pandemiaren ondorioz, makinista ez diren eta trenbide-segurtasunerako lan kritikoak egiten dituzten tren-langile batzuen aldizkako osasun-azterketen maiztasuna egokitzeko neurriei dagokienez. (1). [L 188/16](#)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO